

**Euskal Herriko laborantza  
zentzuen bateratzea.**

**Ondorio estatistikoak, 2006**

# **DATUEN LEHEN IRAKURKETA**

**SUSTATZAILEA:**



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia  
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria  
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

**EGILEA:**



**OHARRA:**

Lan hau Aztiker Soziologia Ikerguneak egin du, eta Amaia Elizagarate Sagastibeltzak zuzendu du, Gaindegiako Estatistika arduradunak.

Lan honen iturria *“Euskal Herriko laborantza zentsuen bateratzea. Azterketa estatistikoa, 2006”* izeneko txostenean aurkituko duzu.

Aipatzen diren termino teknikoen esanahia ezagutzeko jo “Glosategia” izena duen txostenera.

Herri eta eskualdeetako datuak ezagutzeko [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net) datu biltokira jo.

## **AURKIBIDEA**

---

<b>1.</b>	<b>TESTUINGURUA. OINARRIZKO DATU BATZUK .....</b>	<b>3</b>
<b>2.</b>	<b>EZAUGARRI NAGUSIAK.....</b>	<b>4</b>
<b>3.</b>	<b>NEKAZAL LURREN APROBETXAMENDUA .....</b>	<b>5</b>
<b>4.</b>	<b>AZIENDAK .....</b>	<b>7</b>
<b>5.</b>	<b>LAN FAMILIARRA ETA ALOKATUA.....</b>	<b>10</b>
<b>6.</b>	<b>DATUAK, HERRIALDEKA.....</b>	<b>12</b>

## 1. TESTUINGURUA. OINARRIZKO DATU BATZUK

### Euskal Herria

- **Euskal Herrian**, 2001. urteko datuen arabera, 36.326 lagun ari ziren laborantzan lanean; biztanleria okupatuaren %3,0 besterik ez.
- Azken urteetako joerari erreparatuta, ikusten dugu lehen sektoreak gero eta pisu erlatibo apalagoa duela okupatuaren artean.
- 1975. urtean Euskal Herriko biztanle okupatuaren %8,3k egiten zuten lan lehen sektorean. Esan dugun bezala, 2001. urtean portzentaje hori %3,0ra jaitsi da.

### Alderaketa, herrialdeka

#### Lehen sektorearen pisu erlatiboa

- Herrialdetik herrialdera aldea nabarmena da. **Nafarroa Beherean** eta **Zuberoan**, hurrenez hurren, enplegatuen %26,3 eta 21,5 ari dira sektore horretan, gainerako herrialdeetan baino askoz pisu handiagoa du sektore honek herrialde horietan.
- Kostaldeko hiru herrialdeetan, **Bizkaian** (enplegatuen %1,7), **Gipuzkoan** (%1,8) eta **Lapurdin** (%2,4), alegia, askoz apalagoa da lehen sektorearen garrantzi erlatiboa.
- Azkenik, **Arabak** eta **Nafarroa Garaiak** hiru horiek baino portzentaje handiagoak dauzkate, baina ez dira iristen Zuberoako eta Nafarroa Behereko mailara. Araban, biztanleria enplegatuen %3,1 ari da lanean lehen sektorean eta Nafarroa Garaian, %5,4.

#### Lehen sektorean ari direnen banaketa

- Euskal Herrian lehen sektorean lan egiten duen biztanleriari erreparatzen badiogu, eta horiek herrialde bakoitzean nola banatzen diren aztertzen badugu, ikusiko dugu Nafarroa Garaian bizi direla nekazaritzan ari diren biztanle gehienak; **Euskal Herrian lehen sektorean ari direnen %36,2 herrialde horretakoak dira**.
- **Atzetik** datoz gainerakoak, **hurrenkera** honetan: Bizkaia (%20,6), Gipuzkoa (%14,8), Araba (%10,9), Nafarroa Beherea (%8,4), Lapurdi (%5,5) eta Zuberoa (%3,6).

## 2. EZAUGARRI NAGUSIAK

↓ 1999. urtean, **nekazaritzako 71.699 ustiategi** genituen Euskal Herrian. Horietako gehienak **Nafarroa Garaian** zeuden (25.406), ustiategi guztien %35,4, eta **Bizkaian** hurrena (20.376), ustiategi guztien %28,4.

Aztertutako epealdian, 1982tik 1999ra, ustiategi kopurua gutxitu egin da; %22,6 ustiategi gutxiago dago 1999. urtean 1982. urtean baino.

↑ **Euskal Herrian 1.010.876 ha.** ditugu Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria (NAE) modura izendatuak; udalerrietako azalera guztiaren erdia baino apur bat gehiago (%53,7). NAEren erdia baino gehiago Nafarroa Garaian dago (%59,5).

**Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak %19,2 egin du gora** aztertu ditugun 17 urteetan<sup>1</sup>; herrialde guztietan, gainera, gehienbat Bizkaian eta Araban, eta gutxiago Lapurdin.

↑ Euskal Herriko ustiategien batez besteko neurria 14,1 hektareatakoa da. Ustiategien %10,7k 30 ha. edo gehiago dituzte. Ustiategi handienak Zuberotan, Nafarroa Beherean eta Nafarroa Garaian ditugu. Txikienak, berriz, **Bizkaian** eta **Gipuzkoan**.

**Ustiategi bakoitzak batez beste zeukan NAE** handitu egin da Euskal Herrian 1982tik 1999ra, asko handitu ere; 1982an, 9,2 hektareatakoa zen, eta 1999. urtean, 14,1 hektareakoa. **30 hektarea edo gehiago dituzten ustiategien kopurua**, berriz, %36,6 handitu da 1982. urtetik 1999. urtera. Herrialde guztietan handitu da, gainera, ustiategien neurria.

Beraz, ustiategi kopuruak behera egin badu ere, horiek hartzen duten NAE handitu egin da, eta gelditzen diren ustiategien neurria ere handitu egin da. Herrialde guztietan gertatu da fenomeno hori.

Bestalde, ustiategi gehien **Nafarroa Garaian** ditugu, eta Euskal Herriko NAEren erdia baino gehiago herrialde horretan dago.

<sup>1</sup> Komeni litzateke *Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria (NAE)* kontzeptuaren bilakaera aztertzea. Lan horretan adituek adierazi zigutenez nekazaritzako lurrak galdu egin omen dira, baina datu horiek ez dute horrelakorik islatzen; ziurrenik, NAE kontzeptuaren eduki aldaketei zor zaie hori. Ikus glosategiko txostena ([www.gaindegia.org/eu/glosategia](http://www.gaindegia.org/eu/glosategia)).

### 3. NEKAZAL LURREN APROBETXAMENDUA

Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria honako hauek osatzen dute: landutako lurrek eta larre iraunkorretarako lurrek.

#### Landutako lurrak

↑ Euskal Herrian landutako lurrek 473.211 hektarea biltzen dituzte, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren ia erdia (%46,8). Batez beste, 8,5 hektarea landu daude ustiategi bakoitzeko.

Aztertutako epealdian, handitu egin da **Euskal Herrian landutako lurrek** hartzen duten azalera; %3,4 handitu da.

Baina, landutako lurren azalera handitu egin bada ere, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria neurri handiagoan handitu da. Beraz, landutako lurrek NAErekiko osatzen duten portzentajea txikitu egin da. 1982an, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren %54,7 ziren landutako lurrak, eta 1999. urtean, berriz, portzentaje hori %46,8ra jaitsi da.

Landutako lurren azalera handiena **Nafarroa Garaiak** biltzen du, eta ondoren, **Arabak**. Azalera gutxien, berriz, **Gipuzkoak** eta **Bizkaiak** dute.

Landutako lurrak dituzten ustiategien batez besteko neurria antzekoa da **Nafarroa Beherean** (15,6 ha. landu ustiategi bakoitzeko), **Nafarroa Garaian** (15,5 ha.), **Zuberoan** (13,9 ha.) eta **Arabian** (13,9 ha.). Aldiz, dezente txikiagoak dira **Bizkaiko** (0,2 ha. landu ustiategi bakoitzeko) eta **Gipuzkoako** (0,5 ha.) ustiategiak.

Landutako lurren azalera txikiagotu egin da **Gipuzkoan** eta, batez ere, **Bizkaian**. **Nafarroa Garaiak** ere azalera galdu du, baina neurri apalagoan. Gainerako herrialdeetan landutako lurren hektarea kopurua handitu egin da, batez ere, **Zuberoan** eta **Nafarroa Beherean**.

- ✓ Landutako lurrek hartzen dituzten 473.211 hektarea horietatik:
- 272.310 zerealek hartzen dituzte, landutako lurren %57,5
  - 83.977 mahastiek, landutako lurren %17,7
  - 37.356 artoak eta bazka-artoak, landutako lurren %7,9
  - 19.233 barazki eta patatak, landutako lurren %4,1
  - ...

Zerealek azalera gehien **Nafarroa Garaian** eta **Arabian** hartzen dute.

Artoak eta bazka-artoak garrantzi berezia dute **Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan**.

Azkenik, azpimarratu behar dugu, **Bizkaian**, batez ere, baina **Gipuzkoan** ere bai, barazkiek eta patatak landutako lurren zati handia hartzen dutela; %17,6 eta 9,3, hurrenez hurren.

Mahasti gehien dituzten herrialdeak **Nafarroa Garaia** eta **Araba** dira. Gainerako herrialdeetan mahastien presentzia hutsaren hurrena da.

## Larre iraunkorretarako lurrak

↑ Euskal Herriko NAEren erdia baino gehiago larre iraunkorretarako lurrek osatzen dute, 536.888 hektarea. Aztertutako epealdian, gora egin du larre iraunkorretarako erabiltzen den azalera; %42,1eko hazkundera izan du.

**Bizkaiak** eta **Gipuzkoak** daukate larre iraunkorretarako lurren proportzio handiena. Bi herrialde horietan, larre iraunkorretarako erabiltzen dituzte Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren hamar hektareatik bederatzi baino gehiago; %95,2 eta %91,7, hurrenez hurren. Larre iraunkorretarako lurren proportzio txikiena, berriz, **Araban** eta **Nafarroa Garaian** daukate; %38,9 eta %45,2.

Esan dugun bezala, aztertutako epealdian (1982-1999 urte bitartean) gora egin du Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak (%19,2 handitu da). Azalera hori landutako lurrek eta larre iraunkorretarako lurrek osatzen dute. Epe horretan bi azalera horiek handitu badira ere, dezente gehiago handitu da larre iraunkorretarako lurrek hartzen duten azalera, landutako lurrek betetzen dutena baino; azken horrek, ia bere horretan jarraitu du, eta soilik %3,4ko hazkundera izan du. Aldiz, larre iraunkorretarako lurrek hartzen duten azalera %42,1 handitu da.

Azpimarratu behar dugu halaber, **Bizkaian** eta **Gipuzkoan** landutako lurrak dituzten ustiategiak oso txikiak direla; 0,2 eta 0,5 hektarea landu dituzte, hurrenez hurren. Esan dugun bezala, herrialde horietan, gainera, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren hamar hektareatik bederatzi baino gehiago larre iraunkorretarako erabiltzen dituzte.

Landutako lurren azalera handiena **Nafarroa Garaian** dago, eta ondoren, **Araban**. Bi herrialde horiek dute larre iraunkorretarako lurren proportzio txikiena.

## 4. AZIENDAK

↑ Euskal Herrian 419.880 behi-azienda daude erroldatuta, eta ustiategi guztien %24tan daude. Behiak-aziendak dituzten ustiategi bakoitzean, batez beste, 25 buru daude.

1982. urtetik 1999. urtera, Euskal Herrian handitu egin da behi-azienda kopurua (%24,5eko hazkundera izan du). Behi kopurua handitu egin da, beraz, baina esnetarako behien kopurua jaitsi egin da.

Proporzioan, **Zuberoako** eta **Nafarroa Behereko** ustiategi gehiagotan aurkituko ditugu behi-aziendak besteetan baino. Beste aldean, ustiategi gutxiagotan aurkituko ditugu behi-aziendak **Nafarroa Garaian** eta **Arabian**.

Ustiategi handienak, berriz, **Nafarroa Garaian** (batez beste, 43 buru behi-aziendak dituzten ustiategi bakoitzeko), **Zuberoan** (38), **Arabian** (37) eta **Nafarroa Beherean** (34) ditugu. Txikiak, **Bizkaian** (13 buru ustiategiko) eta **Gipuzkoan** (16).

↑ **Ardi-amak** 1.336.854 ditugu; eta ustiategien %14,7tan aurkitzen ditugu. Batez beste, 127 buru daude ardi-amak dituzten ustiategi bakoitzean.

Aztertutako epealdian, 1982tik 1999ra, gora egin du ardi-ama kopuruak (%53,2 handitu da).

**Nafarroa Behereko** eta **Zuberoako** ustiategien erdietan baino gehiagotan aurkituko ditugu ardi-amak; %57,6 eta %59,7tan, hurrenez hurren. **Gipuzkoako** eta **Lapurdiko** ustiategi askotan ere aurkituko ditugu ardi-amak; %20,4tan Gipuzkoan eta %32,5etan Lapurdin.

Buru kopuruari dagokionez, ustiategi handienak **Nafarroa Garaian** topatuko ditugu. Han, 248 ardi-ama dituzte ustiategi bakoitzeko. **Nafarroa Beherean**, **Zuberoan**, **Arabian** eta **Lapurdin** ere ehun burutik gora aurkituko ditugu ustiategi bakoitzean. Txikiagoak dira **Bizkaiko** eta **Gipuzkoako** ustiategiak.

↑ **Ahuntz-aziendak** 43.272 buru ditugu Euskal Herrian; eta ustiategien %3,7tan ageri dira; batez beste, 16 buru dituzte ustiategi bakoitzean.

1982 urtetik 1999 urtera, gora egin du ahuntz-azienda kopuruak, %30,8.

**Bizkaian** eta **Gipuzkoan** daude ahuntzak dituzten ustiategi gehiak, bai kopuru absolutuetan bai proporzioan ere. Herrialde horietan, ustiategien %5,5etan dituzte ahuntzak. Gainerako herrialdeetan, ustiategien %2-3k dituzte ahuntz-aziendak.

**Bizkaiko** eta **Gipuzkoako** datuek badute, ordea, beste alderdi bat: beste herrialdeetako baino ahuntz **gutxiago** dituzte ustiategi bakoitzean; batez beste, 9 buru. **Lapurdin** ere ahuntz gutxi aurkituko ditugu ustiategi bakoitzean, 6, batez beste. Buru kopuru handiena, berriz ere, **Nafarroa Garaian** topatzen dugu; 42 dituzten ustiategi bakoitzeko.

↑ 584.065 dira erroldatuta dauden **txerri-aziendak**; horietatik 85.338 **txerri-amak** dira. Azken horiek ustiategien %3,6tan aurkitzen ditugu (ez dugu datu hori txerri-aziendentzat). Batez beste, 33 buru daude txerri-amak dituzten ustiategi bakoitzean.

Txerri-azienden kopuruak gora egin du aztertutako epealdian; 1982. urtetik 1999. urtera, %44,7 handitu da. Txerri-amen kopuruak ere gora egin du, bereziki 1989. urtetik 1999. urtera.

Txerri-amak dituzten ustiategi gehienak **Nafarroa Garaian** badaude ere (Nafarroa Garaiko ustiategien %4,8tan), txerri-amak dituzten ustiategien proportzio handiena **Nafarroa Beherean** eta **Arabian** dago, ustiategien %5etan baino gehiagotan dituzte txerri-amak herrialde horietan (ez dugu datu hori txerri-aziendentzat).

Ustiategi bakoitzean batez beste zenbat txerri-ama dauden aztertzen badugu, Nafarroa Garaia nabarmentzen zaigu berriz ere; 57 txerri-ama dituzte ustiategi bakoitzeko. Ondotik datoz **Nafarroa Beherea** (31 txerri-ama ustiategiko) eta **Lapurdi** (26). Gainerakoak txikiagoak dira, eta berriz ere txikiak, **Bizkaikoak** eta **Gipuzkoakoak**.

↑ **Zaldi-aziendak** 36.651 buru ditugu Euskal Herrian, eta, ustiategien %10,2tan badaude. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 5 zaldi-azienda daude.

Gora egin du zaldi-azienda kopuruak 1982. urtetik 1999. urtera; %7,9 handitu da, hain zuzen, zaldi-azienda kopurua.

Herrialdeetako datuak elkarrekin alderatuta, proportzioan, **Arabako** eta **Nafarroa Garaiko** ustiategi gutxiagotan aurkituko ditugu zaldi-aziendak beste herrialdeetan baino. Bi herrialde horietako ustiategien %5,2tan besterik ez dituzte zaldi-aziendak. Dena den, batez beste, ustiategi horietako bakoitzean zaldi-azienda gehiago topatuko ditugu gainerakoetan baino; 9 zaldi-azienda ustiategi bakoitzeko.

↓ **Hegaztiak** 5.207.226 dira Euskal Herrian; eta ustiategien %26,6tan aurkitzen ditugu. Horietako bakoitzean, batez beste, 274 hegazti daude.

Behera egin du hegazti kopuruak 1982. urtetik 1999. urtera (%25 gutxitu da).

Zuberoan eta Nafarroa Beheran daude ustiategi gehien hegaztiekin. **Zuberoan** ustiategien %80,7tan badira, eta **Nafarroa Beherean**, %73,2tan. Hegaztidun ustiategi gutxien, berriz, **Nafarroa Garaian** daude; herrialde horretan, ustiategien %9,3tan soilik topatuko ditugu hegaztiak.

Halere, **Nafarroa Garaikoak** dira ustiategi handienak; herrialde horretan, batez beste, 1.230 hegazti dituzte hegaztiekin lan egiten duten ustiategi bakoitzean. Txikiak, berriz, **Zuberoakoak** dira; 72 hegazti daude ustiategi bakoitzean.

Beraz, Hegaztiak izan ezik, egun abere-buru gehiago dago Euskal Herrian 1982. urtean baino. Batez ere, ardi-amak eta txerri-aziendak areagotu dira; %53,2 eta %44,7ko hazkundera izan dute abere-buru horiek, hurrenez hurren.

Lastima da, baina ezin izan dugu jakin ustiategietan zer bilakaera eduki duten aziendek eta abere-buru kopuruek. Datu horiek argi gehiago emango ligukete goranzko joera horren azalpenak eman ahal izateko.

Herrialdez herrialde joanez gero, eta azienda mota bakoitzak zer leku hartzen duen aztertuz gero, honako datuak agertzen zaizkigu: proportzioan, **Zuberoako** eta **Nafarroa Behereko** ustiategi gehiagotan aurkituko ditugu behi-aziendak, ardi-amak, zaldi-aziendak eta hegaztiak, besteetan baino. Ahuntz-aziendak, berriz, **Bizkaiko** eta **Gipuzkoako** ustiategietan aurkituko ditugu gehiago.

Azkenik, Txerri-aziendak **Nafarroa Behereko** eta **Arabako** ustiategi gehiagotan aurkituko baditugu ere, **Nafarroa Garaian** ditugu ustiategi gehienak eta handienak.

Orokorrean, abeltzaintzari dagokionez, **Nafarroa Garaikoak** dira ustiategi handienak; ustiategi bakoitzak batez beste zenbat abere-buru dituen aztertuta ere, Nafarroa Garaikoek dute gehien, kasu guztietan, gainera.

## 5. LAN FAMILIARRA ETA ALOKATUA

- ✓ Nekazaritzako zentsuaren arabera, **ustiategi nagusien** erdiek baino gehiagok (%57,2) 55 urte edo gehiago dituzte. Gazteak, berriz, hau da, 40 urtetik beherakoak, %13,3 besterik ez dira ustiategi jabeetan.

**Euskal Herriko** ustiategien nagusiak geroz eta helduagoak dira, baina aldaketa ez da oso handia izan 17 urteko epean. 1982. urtean, ustiategia gidatzen zutenen %55,3k zituzten 55 urte edo gehiago, eta 1999. urtean, %57,2 zeuden adin tarte horretan. Gazteenak, berriz, hots, 40 urtetik beherakoak, %12,4 ziren lehen, eta %13,3 orain. 1982. urtearekin alderatuta, igo egin da portzentajea, baina 1989tik hona jaitsi. Dena den, batez ere, adin ertainekoak jaitsi dira.

Herrialdetik herrialdera, aldeak handiak dira ustiategi nagusien adin banaketan. Proporzioan, gazte gehiago dago ustiategiak gidatzen **Nafarroa Beherean** eta **Zuberoan**, gainerako herrialdeetan baino. Herrialde horietan, ustiategi jabeen %80k baino gehiagok dituzte 55 urte baino gutxiago.

**Bizkaian** eta **Gipuzkoan** topatzen dugu 55 urte edo gehiagoko laborari gehien ustiategien buru. Bizkaian %66,3 daude adin tarte horretan, eta Gipuzkoan, berriz, %60,1.

- ↓ **Euskal Herrian** Urteko Lan Unitateak (ULU) 52.059 ziren 1999. urtean. Aztertutako epealdian, behera egin dute; 1982. urtetik 1999. urtera, %23,4 jaitsi dira. Urteko Lan Unitate gehienak familiakoak dira; zehazki, ULUen %84,4 familiakoak dira, eta gainerako %15,5ak soldatapekoak.

- ↓ Familiako ULUek behera egin dute 1982. urtetik 1999. urtera; %29,0 jaitsi dira, 61.873tik, 43.949ra.

- ↑ Aldiz, soldatapeko ULUek gora egin dute; 1982. urtean 6.050 ziren, eta 8.080 1999. urtean; beraz, %33,6 igo dira.

- ✓ Euskal Herriko Urteko Lan Unitate gehienak **Nafarroa Garaian** (%31,6) ditugu, baina asko dira **Gipuzkoan** (%22,8) eta **Bizkaian** ere (%21,5). Aztertutako epealdian herrialde guztietan jaitsi dira ULUak; gutxiago **Gipuzkoan** eta gehiago **Lapurdin**.

- ↓ **Euskal Herriko** ustiategien %93,9 ustiategi indibidualak dira (67.340), hau da, titularra pertsona fisiko bat da.

Ustiategi indibidualak oso hedatuak badaude ere, jaitsi egin dira 1982. urtetik 1999. urtera. 1982. urtean, ustiategien %96,8 ziren banakoenak, eta 1999. urtean, %93,9.

**Herrialde gehienetan**, %90etik gora dabil ustiategi indibidualen portzentajea. Salbuespena **Araban** eta **Nafarroa Beherean** dugu; herrialde horietan %82,3 eta %88,1 dira, hurrenez hurren, ustiategi indibidualak.

1982. urtetik 1999. urtera Euskal Herriko Urteko Lan Unitateak behera egin duten bezala, ustiategiko nagusien kopuruak ere behera egin du adin tarte guztietan. Adin banaketak adierazten digunez, adin tarte zaharrenetakoak dira ustiategi jabe gehienak, %57,2. Eta handitu ere, adin tarte hori handitu da gehien proporzioan.

Dena den, aldeak nabarmenak dira herrialdetik herrialdera. **Nafarroa Beherean** eta **Zuberoan** 55 urtetik beherakoak dira ustiategi jabeen %80 baino gehiago. **Lapurdin** ere, erdiak baino gehiago daude adin horretatik behera.

Aldiz, **Gipuzkoan** eta **Bizkaian** %60k baino gehiagok (%66,3 Bizkaian) dituzte 55 urte baino gehiago. Tartean ditugu **Araba** eta **Nafarroa Garaia**, baina bi herrialde horietan ere ustiategi jabeen erdiek baino gehiagok 55 urte baino gehiago dituzte.

Esan dugun bezala, 1982. urtetik 1999. urtera gutxitu egin dira **Euskal Herrian urteko lan unitateak**, herrialde guztietan. Batez ere, familiako lan unitateak jaitsi dira, eta soldatapekoak ugaritu.

Azkenik, azpimarratu behar dugu **Euskal Herriko** ustiategi gehienak, indibidualak direla, baina joera beheranzkoa da, hau da, ustiategi indibidualak gero eta gutxiago dira proportzioan. Herrialde gehienetan atzematen da joera hori, **Gipuzkoan** eta **Bizkaian salbu**, non eutsi egin dieten proportzioei.

## 6. DATUAK, HERRIALDEKA

### 6.1. ARABA

#### Ezaugarri nagusiak

- ↓ 1999. urtean, nekazaritzako **7.521 ustiategi** zeuden Araban erroldatuta. Euskal Herriko ustiategien %10,5. Aztertutako epealdian, ustiategi kopuruak behera egin du herrialde horretan; %9,1 desagertu dira. Halere, Euskal Herrian batez beste desagertu diren baino gutxiago galdu dira Araban.
- ↑ Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak Araban **142.785 ha.** hartzen ditu, Euskal herriko NAEren %14,1. Udalerrietako azalera guztiaren ia erdia, beraz, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria da (%48,3). Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak %27,9 egin du gora aztertu dugun epean.
- ↑ Arabako ustiategien batez besteko tamaina 19,0 hektareatakoa da. 30ha. edo gehiago dituzten ustiategiak, berriz, ustiategi guztien %18,3 dira.  
**Ustiategi bakoitzeko batez besteko NAE** handitu egin da Araban aztertu dugun epean; 1982an 13,5 hektareatakoa zen, eta 19,0 hektareatakoa 1999. urtean.

#### Nekazal lurren aprobetxamendua

##### Landutako lurrak

- ↑ Araban landutako lurrek 87.267 hektarea hartzen dituzte, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren ia herena (%61,1). Batez beste, beraz, 13,9 hektarea landu ditu ustiategi bakoitzak.  
Aztertutako epean, 1982 urtetik 1999. urtera, handitu egin da Araban landutako lurrek hartzen duten azalera (%13,6 handitu da).
- ↓ Landutako lurrek NAErekiko hartzen duten portzentajea, berriz, txikitu egin da. 1982an landutako lurrak Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren %75,9 ziren, eta 1999. urtean %61,1ra jaitsi da portzentaje hori. Dena den, oraindik ere, portzentaje hori Euskal Herriko herrialdeetako altuena da.
- Landutako lurrek hartzen dituzten 87.267 hektarea horietatik:
  - ✓ 56.092 zerealek hartzen dituzte, landutako lurren %64,3
  - ✓ 11.761 mahastiek, landutako lurren %13,5
  - ✓ 4.437 barazki eta patatak, landutako lurren %5,1
  - ✓ 464 artoak eta bazka-artoak, landutako lurren %0,5
  - ✓ ...
- ↑ Zerealen hektarea kopuruak gora egin du 1982 urtetik 1999ra; %10,4 handitu da, hain zuzen.
- ↓ Artoaren hektarea kopuruak behera egin du nabarmen 1982 urtetik 1999ra; %47,9 txikitu da.

- ↓ Barazkien eta patataren hektarea kopuruak ere beherea egin du, oso nabarmen; %53,2 txikitu da.
- ↑ Mahastien hektarea kopuruak gora egin du 1982. urtetik 1999. urtera; 7.569 hektarea ziren lehen, eta 11.761 orain; %55,4ko hazkundera izan du.
- ↑ Azkenik, lugorriek azalera 1982. urtean halako bi da 1999an.

### Larre iraunkorretarako lurrak

- ↑ **Arabako NAEren herena baino gehiago** larre iraunkorretarako lurrek osatzen dute, 55.518 hektarea, hain zuzen.  
Gora egin du larre iraunkorretarako erabiltzen den azalera 1982. urtetik 1999. urtera, eta lehen halako bi da egun.

### Aziendak

- ↑ Araban **40.690 behi-azienda** daude erroldatuta, herrialde horretako ustiategi guztien %14,9tan. Batez beste, 37 buru daude behiak-azienda dituzten ustiategi bakoitzean.  
1982. urtetik 1999. urtera, handitu egin da behi-azienda kopurua; %54 handitu da, 26.429tik 40.690era. Behi kopurua ere handitu egin da, baina esnetarako behien kopurua txikitu egin da.
- ↑ **Arabian, 78.147 ardi-ama** ditugu; ustiategien %8,4tan. Batez beste, 123 buru daude ardi-amak dituzten ustiategi bakoitzean.  
Aztertutako epealdian, 1982tik 1999ra, gora egin du ardi-ama kopuruak; 68.949 ziren 1982an, eta 78.147, berriz, 1999an; beraz, %13,3 handitu da kopurua.
- ↓ 1999. urtean, **4.978 ahutz-azienda** zeuden erroldaturik Araban, ustiategien %2,4tan. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 27 ahuntz dituzte.  
1982 urtetik 1999 urtera apur bat behera egin du ahuntz-azienda kopuruak; %3,0 jaitsi da, 2.132tik, 4.978ra.
- ↓ Araban, 1999. urtean **20.694 txerri-azienda** zeuden erroldatura; horietatik 5.544 txerri-amak. Txerri-amak ustiategien %5,3tan daude. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 14 txerri-ama dituzte.  
Txerri-azienten kopuruak behera egin du, eta 1982. urtetik 1999. urtera, %44,0 txikitu da txerri-azienten kopurua. Eta txerri-amen kopuruak ere behera egin du epe horretan.
- ↑ 1999. urtean **Arabian 3.507 zaldi-azienda** zeuden erroldaturik, ustiategien %5,2tan. Ustiategi bakoitzean, batez beste, 9 zaldi-azienda daude.  
Gora egin du zaldi-azienda kopuruak 17 urtetan; 1982. urtetik, %13,6 igo da.
- ↓ **Arabian, 1999. urtean, 170.143 hegazti** zeuden erroldatuak, ustiategien %21,7tan. Bakoitzean, batez beste, 108 hegazti daude.  
Behera egin du hegazti kopuruak 1982. urtetik 1999. urtera; %48,4 jaitsi da, hain zuzen.

## Lan familiarra eta alokatua

- ✓ Nekazaritzako zentsuaren arabera, ustiategi nagusien erdiek baino gehiagok (%51,8) 55 urte edo gehiago dituzte. Gazteak, berriz, hau da, 40 urtetik beherakoak, ustiategi nagusien %16,4 besterik ez dira.

Aztertutako epealdian, adin tarte gazteenetakoak hazi dira gehien ustiategi nagusien artean; 1982. urtean, nagusien %14,4k zituzten 40 urte baino gutxiago, eta 1999. urtean, berriz, %16,4ra igo da portzentaje hori.

- ↓ **Arabian** Urteko Lan Unitateak 5.545 ziren 1999. urtean. Aztertutako epealdian, behera egin dute, %14,4, hain zuzen.

Urteko Lan Unitate gehienak familiakoak dira; zehazki, ULUen %69,2 familiakoak dira, eta gainerako %30,8ak soldatapekoak.

ULU familiarrak behera egin dute 1982. urtetik 1999. urtera; %31,5eko jaitsiera izan dute. Aldiz, soldatapeko ULUek gora egin dute; ia bikoiztu egin dira.

- ↓ **Arabako** ustiategien %82,3 ustiategi indibidualak dira, hau da, pertsona bakar bat ageri da jabe gisa.

Ustiategi gehiengoa indibidualak diren arren, gutxitu egin dira 1982. urtetik 1999. urtera.

## 6.2. BIZKAIA

### Ezaugarri nagusiak

- ↓ 1999. urtean, Bizkaian nekazaritzako **20.379 ustiategi** zeuden, Euskal Herriko ustiategien %28,4. Ustiategi kopuruak behera egin du aztertutako epealdian; 1982. urtetik 1999. urtera, ustiategien %5,1 desagertu dira. Halere, Euskal Herrian batez beste desagertu diren baino proportzio apalagoan desagertu dira Bizkaian.
- ↑ Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak Bizkaian **68.160 ha.** hartzen ditu, Euskal Herriko NAEren %6,7; udalerrietako azalera guztiaren %39,3. Portzentaje hori nahiko txikia da, Euskal Herriko batez besteko portzentajearekin alderatzen badugu; Euskal Herrian, udalerrietako azalera guztiaren %53,7 betetzen du NAEk. Dena den, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak %33,6 egin du gora Bizkaian aztertutako 17 urteetan.
- ↑ Bizkaiko ustiategien batez besteko neurria 3,3 hektareatakoa da. **30ha. edo gehiago dituzten ustiategiak**, berriz, ustiategi guztien %1,1 baino ez dira. Euskal Herriko batez bestekoarekin alderatuta, ustiategi txikiak ditugu Bizkaian.  
Dena den, **ustiategi bakoitzeko batez besteko NAE** handitu egin da Bizkaian aztertutako epealdian; 1982an 2,4 hektareatakoa zen, eta 1999. urtean 3,3 hektareatakoa.

### Nekazal lurren aprobetxamendua

#### Landutako lurrak

- ↓ Bizkaian landutako lurrek 3.264 hektarea hartzen dituzte, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren zati oso txikia, %4,8; gogoratu behar da Euskal Herriko lur landuen batez bestekoa NAEren %46,8 dela.  
Bizkaian, beraz, batez beste, 0,2 hektarea landu daude ustiategi bakoitzeko (8,2 Euskal Herrian).  
Aztertutako epealdian, txikitu egin da Bizkaian landutako lurrek betetzen duten azalera (%54,6 txikitu da).
- ↓ Landutako lurrek NAErekiko hartzen duen portzentajea ere dezente txikitu da; 1982an, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren %14,2 ziren landutako lurrak, eta 1999. urtean, portzentaje hori %4,8ra jaitsi da.
  - Landutako lurrek betetzen dituzten 3.264 hektarea horietatik:
    - ✓ 575 barazki eta patatak betetzen dituzte landutako lurren %17,6
    - ✓ 458 artoak eta bazka-artoak, landutako lurren %14,0
    - ✓ 179 mahastiek, landutako lurren %5,5.
    - ✓ 173 zerealek, landutako lurren %5,3
    - ✓ ...
- ↓ Zerealen hektarea kopuruak behera egin du nabarmen, 1982 urtetik 1999ra; %64,9 txikitu da.

- ↓ Artoaren hektarea kopuruak ere behera egin du nabarmen 1982 urtetik 1999ra; %65,4.
- ↓ Barazkien eta patataren hektarea kopuruak ere beherea egin du nabarmen; %78,0.
- ↑ Mahastien hektarea kopuruak nabarmen egin du gora 1982. urtetik 1999. urtera; 23 hektarea hartzen zituzten lehen, eta 179 orain; ia 8 aldiz halakotu dira.
- ↓ Azkenik, lugorrien azalera ere behera egin du Bizkaian; 1982 urtetik 1999ra %70eko azalera galdu dute.

### Larre iraunkorretarako lurrak

- ↑ **Bizkaiko NAE gehien-gehiena (%95,2)** larre iraunkorretarako lurrek osatzen dute, 64.896 hektarea.  
Gora egin du larre iraunkorretarako erabiltzen den azalera aztertutako epean. 1982. urtetik 1999. urtera, %49,7ko hazkundea izan du.

### Aziendak

- ↓ Bizkaian 71.341 behi-azienda daude eroldan, eta ustiategien %26,2tan aurki ditzakegu. Batez beste, 13 buru daude behiak-azienda dituzten ustiategi bakoitzean.  
1982. urtetik 1999. urtera, apur bat gutxitu egin da behi-azienda kopurua, %3,5. Behi kopuruak bere horretan jarraitu du, eta esnetarako behi kopurua txikitu egin da.
- ↑ Bizkaian, 63.590 ardi-ama ditugu, ustiategien %9,9tan. Batez beste, 32 buru daude ardi-amak dituzten ustiategi bakoitzean.  
1982tik 1999ra, gora egin du ardi-ama kopuruak; bikoiztu egin dira.
- ↑ 1999. urtean, 9.741 ahutz-azienda zeuden. Eta ustiategien %5,5etan ageri ziren. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 9 ahuntz dituzte.  
1982 urtetik 1999 urtera gora egin du ahuntz-azienda kopuruak; %8,9 gehiago dira egun.
- ↓ Bizkaian, 1999. urtean 10.559 txerri-azienda zeuden erroldatuta; horietatik 1.895 txerri-amak. Txerri-amak Bizkaiko ustiategien %2,2tan aurkitzen ditugu. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 4 txerri-ama daude.  
Txerri-azien den kopuruak behera egin du aztertutako epealdian; 1982. urtetik 1999. urtera, %17,1 txikitu da txerri-azien den kopurua. Txerri-amen kopuruak, berriz, gora egin du, %48,2.
- ↓ 1999. urtean **Bizkaian** 7.841 zaldi-azienda zeuden, ustiategien %12,6tan. Ustiategi bakoitzean, batez beste, 3 zaldi-azienda daude.  
Behera egin du zaldi-azienda kopuruak aztertutako 17 urteetan; 1982. urtean baino %9,2 gutxiago dira 1999. urtean.
- ↓ **Bizkaian**, 1999. urtean, 783.022 hegazti zeuden, ustiategien %27,7tan. Bakoitzean, batez beste, 139 hegazti.  
Behera egin du hegazti kopuruak 1982. urtetik 1999. urtera; %20,7 gutxitu dira.

## Lan familiarra eta alokatua

---

- ✓ Nekazaritzako zentsuaren arabera, ustiategien hiru nagusietatik bik (%66,3,) 55 urte edo gehiago dituzte. Gazteak, berriz, hau da, 40 urtetik beherakoak, %7,9 besterik ez dira.

**Bizkaiko** ustiategi nagusiak geroz eta helduagoak dira, gainera; gehien handitu den adin tartea zaharrenena da. 1982. urtean, nagusien %63,5ek zituzten 55 urte edo gehiago, eta 1999. urtean, %66,3ra igo da portzentaje hori.

- ↓ **Bizkaian** Urteko Lan Unitateak 11.179 ziren 1999. urtean. Aztertutako epealdian, behera egin dute; 1982. urtetik 1999. urtera, %21,1 jaitsi dira.

Urteko Lan Unitate gehienak familiakoak dira; zehazki, ULUen %93,5 familiakoak dira, eta gainerako %6,5ak soldatapekoak.

- ↓ **Familia ULUek** behera egin dute 1982. urtetik 1999. urtera, %21,9. Soldatapeko ULUek ere behera egin dute, %7,2.

- ✓ **Bizkaiko** ustiategien %98,0 indibidualak dira, hau da, titularra pertsona fisiko bat da.

Ustiategi indibidualek guztiekiko hartzen duten portzentajeak berdin jarraitu du 1982. urtetik 1999. urtera.

## 6.3. GIPUZKOA

### Ezaugarri nagusiak

- ↑ 1999. urtean, nekazaritzako **12.405 ustiategi** zeuden Gipuzkoan, Euskal Herriko ustiategien %17,3. Gutxi bada ere, ustiategi kopuruak gora egin du 1982. urtetik 1999. urtera; %5,3 handitu da. Euskal Herriko herrialdeetatik Gipuzkoan soilik egin du gora ustiategi kopuruak.
- ↑ Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak Gipuzkoan **59.799 ha.** hartzen ditu, Euskal Herriko NAEren %5,9. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria udalerrietako azalera guztiaren herena baino apur bat gehiago da Gipuzkoan (%36,9). Euskal Herriko herrialdeetako portzentajerik txikiena. Dena den, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak %35,1 egin du gora aztertutako 17 urteetan.
- ↑ Gipuzkoako ustiategien batez besteko neurria 4,8 hektareatakoa da. **30ha. edo gehiago dituzten ustiategiak**, berriz, ustiategi guztien %1,5 dira. Euskal Herriko batez bestekoarekin alderatuta, ustiategi txikiak ditugu Gipuzkoan.  
Dena den, **ustiategi bakoitzeko batez besteko NAE** handitu egin da aztertu dugun epean; 1982an 3,8 hektareatakoa zen, eta 1999. urtean 4,8 hektareatakoa.

### Nekazal lurren aprobetxamendua

#### Landutako lurrak

- ↓ Landutako lurrek 4.961 hektarea hartzen dituzte Gipuzkoan, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren oso zati txikia, %8,3; Euskal Herrian, landutako lurren batez bestekoa NAEren %46,8 da.  
Batez beste, beraz, 0,5 hektarea landu daude Gipuzkoan ustiategi bakoitzeko.  
Aztertutako epealdian, txikitu egin da Gipuzkoan landutako lurrek hartzen duten azalera; %10,6 txikitu da.
- ↓ Landutako lurrek NAErekiko betetzen duen portzentajea ere txikitu egin da; 1982an, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren %12,5 ziren landutako lurrak, eta 1999. urtean, %8,3ra jaitsi da portzentaje hori.
  - Landutako lurrek betetzen dituzten 4.961 hektarea horietatik:
    - ✓ 462 barazki eta patatak betetzen dituzte landutako lurren %9,3
    - ✓ 320 artoak eta bazka-artoak, landutako lurren %6,5
    - ✓ 263 zerealek, landutako lurren %5,3
    - ✓ 118 mahastiek, landutako lurren %2,4
    - ✓ ...
- ↑ Zerealen hektarea kopuruak gora egin du, 1982 urtetik 1999ra; %43,3 handitu da.
- ↑ Artoaren hektarea kopuruak ere gora egin du 1982 urtetik 1999ra; %29,8 handitu da.
- ↓ Barazkien eta patataren hektarea kopuruak, berriz, beherea egin du nabarmen; %67,1 txikitu da.

↑ Mahastien hektarea kopuruak nabarmen egin du gora 1982. urtetik 1999. urtera; 10 aldiz halakotu dira.

↑ Azkenik, lugorrien azalera 1982an ia halako lau da 1999an Gipuzkoan.

### Larre iraunkorretarako lurrak

↑ **Gipuzkoako** NAEren zati handiena (%91,7) larre iraunkorretarako lurrek osatzen dute, 54.838 hektarea.

Gora egin du larre iraunkorretarako erabiltzen den azalera. 1982. urtetik 1999. urtera, %41,6 handitu da.

### Aziendak

↑ Gipuzkoan 69.365 behi-azienda daude erroldatuta. Eta ustiategien %34,6tan aurki ditzakegu. Batez beste, 16 buru daude behiak-azienda dituzten ustiategi bakoitzean.

1982. urtetik 1999. urtera, handitu egin da behi-azienda kopurua; %8,2eko hazkundera izan du. Behi kopurua ere handitu egin da, baina esnetarako behien kopurua jaitsi egin da.

↑ Gipuzkoan, 138.835 ardi-ama ditugu, ustiategien %20,4tan. Batez beste, 55 buru daude ardi-amak dituzten ustiategi bakoitzean.

1982tik 1999ra, gora egin du ardi-ama kopuruak; ia bikoiztu egin da.

↑ 1999. urtean, 5.906 ahutz-azienda zeuden erroldaturik, ustiategien %5,5etan. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 9 ahuntz dituzte.

1982 urtetik 1999 urtera gora egin du ahuntz-azienda kopuruak, %19,7.

↓ Gipuzkoan, 1999. urtean 7.504 txerri-azienda zeuden; horietatik 2.438 txerri-amak. Txerri-amak Gipuzkoako ustiategien %2,7tan daude. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 7 txerri-ama dituzte.

Txerri-azien den kopuruak behera egin du; 1982. urtetik 1999. urtera, %69,9 gutxitu da txerri-azienda. Txerri-amen kopuruak ere behera egin du.

↓ 1999. urtean Gipuzkoan 5.602 zaldi-azienda zeuden, ustiategien %14,7tan. Ustiategi bakoitzean, batez beste, 3 zaldi-azienda daude.

Behera egin du apur bat zaldi-azienda kopuruak aztertutako 17 urteetan; %2,2.

↓ Gipuzkoan, 1999. urtean, 916.895 hegazti zeuden, ustiategien %44,0tan. Bakoitzean, batez beste, 168 hegazti.

Behera egin du nabarmen hegazti kopuruak, 1982. urtetik 1999. urtera; %65,1eko beherakada izan du.

## Lan familiarra eta alokatua

---

- ✓ Nekazaritzako zentsuaren arabera, ustiategi nagusien hirutik biki ia (%60,1,) 55 urte edo gehiago dituzte. Gazteak, berriz, hau da, 40 urtetik beherakoak, %10,7 besterik ez dira.

**Gipuzkoako** ustiategi nagusien artean gehien handitu den taldea 40 urtetik beherakoena da. 1982. urtean, %9,6 ziren adin tarte horretako nagusiek, eta 1999. urtean, berriz, %10,7 dira. Dena den, **helduenen taldea** ere handitu egin da, adin tarte ertainekoen kalterako; 1982. urtean %58,5 ziren eta 1999. urtean %60,1.

- ✓ **Gipuzkoan** Urteko Lan Unitateak 11.870 ziren 1999. urtean. Ia berdintsu jarraitu dute 17 urteko tartean (%0,9ko beherakada izan dute). Urteko lan unitateak gutxien galdu dituen herrialdea da Gipuzkoa.

Urteko Lan Unitate gehienak familiakoak dira; zehazki, ULUen %95,0 familiakoak dira, eta gainerako %5,0 soldatapekoak.

Familia ULUek apur bat behera egin dute 1982. urtetik 1999. urtera, %3,3. Soldatapeko ULUek, berriz, gora egin dute; %86,1 handitu dira.

- ✓ **Gipuzkoako** ustiategien %97,9 ustiategi indibidualak dira (12.150), hau da, titularra pertsona fisiko bat da.

Ustiategi indibidualen portzentajeak ia aldatu gabe jarraitu du 1982. urtetik 1999. urtera.

## 6.4. LAPURDI

### Ezaugarri nagusiak

- ↓ 2000. urtean, **nekazaritzako 2.404 ustiategi** zeuden Lapurdin, Euskal Herriko ustiategien %3,4. Ustiategi kopuruak beherakada nabarmena izan du Lapurdin aztertu dugun epealdian; 1979. urtetik 2000. urtera, ustiategien %31,5 desagertu dira.
- ↑ Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak Lapurdin **33.997 ha.** hartzen ditu, Euskal Herriko azaleraren %3,4. Lapurdiko udalerrien azalera guztia kontuan hartzen badugu, udalerrietako azalera guztiaren %39,7 da Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria; Euskal Herriko batez bestekotik behera, non udalerrietako azaleraren %53,7 NAE den. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak ia aldatu gabe jarraitu du Lapurdin aztertu dugun tartean; soilik %2,5 egin du gora.
- ↑ Lapurdin ustiategien batez besteko neurria 14,0 hektareatakoa da. **30ha. edo gehiago dituzten ustiategiak**, berriz, %15,3 dira.  
**Ustiategi bakoitzeko batez besteko NAE** handitu egin da Lapurdin; 1979an 9,0 hektareatakoa zen, eta 2000. urtean 14,0 hektareatakoa.

### Nekazal lurren aprobeixamendua

#### Landutako lurrak

- ↑ Landutako lurrek 11.149 hektarea hartzen dituzte Lapurdin, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren ia herena (%32,8). Batez beste, beraz, 9,9 hektarea landu daude ustiategi bakoitzeko.  
Aztertutako epealdian, handitu egin da Lapurdin landutako lurrek hartzen duten azalera; %33,8 handitu da 1979. urtetik 2000. urtera.
- ↑ Landutako lurrek NAErekiko hartzen duten portzentajea ere handitu egin da. 1979an, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren %25,1 ziren landutako lurrak, eta 2000. urtean, portzentaje hori %32,8raino handitu da.
- Landutako lurrek hartzen dituzten 11.149 hektarea horietatik:
  - ✓ 6.177 artoak eta bazka-artoak betetzen dituzte landutako lurren %55,4
  - ✓ 3.222 zerealek, landutako lurren %28,9
  - ✓ 78 barazki eta patatak, landutako lurren %0,7
  - ✓ 23 mahastiek, landutako lurren %0,2
  - ✓ ...
- ↓ Zerealen hektarea kopuruak behera egin du 1979. urtetik 2000. urtera; %28,9 txikitu da..
- ↓ Artoaren hektarea kopuruak ere behera egin du 1979. urtetik 2000. urtera; %23,7.
- ↓ Barazkien eta patataren hektarea kopuruak behera egin du nabarmen; %70,8 txikitu da.

- ↓ Mahastien hektarea kopuruak nabarmen egin du behera 1979. urtetik 2000. urtera; %84,0 txikitu da.
- ↑ Azkenik, lugorrien azalera izugarri handitu da Lapurdin; 1979. urtean, 48 hektarea hartzen zituzten lugorriek, eta 2000. urtean, berriz, 371 hektarea.

### Larre iraunkorretarako lurrak

- ↓ **Lapurdiko** NAEren bi heren (%66,5) larre iraunkorretarako lurrek osatzen dituzte, 22.604 hektarea.  
Behera egin du larre iraunkorretarako erabiltzen den azalera; 1979. urtetik 2000. urtera, %6,9 txikitu da.

### Aziendak

- ↓ Lapurdin 26.040 behi-azienda daude erroldatuta, eta ustiategien %41,0etan aurki ditzakegu. Batez beste, 26 buru daude behiak-azienda dituzten ustiategi bakoitzean.  
1979. urtetik 2000. urtera, txikitu egin da behi-azienda kopurua, %13,5. Behi kopurua ere gutxitu egin da, eta esnetarako behien kopurua ere bai.
- ↑ **Lapurdin**, 84.733 ardi-ama ditugu, ustiategien %32,5etan. Batez beste, 108 buru daude ardi-amak dituzten ustiategi bakoitzean.  
1979tik 2000ra, gora egin du ardi-ama kopurua; %28,3 handitu da, hain zuzen.
- ↓ 2000. urtean, 305 ahutz-azienda zeuden, ustiategien %2,0tan. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 6 ahutz dituzte.  
1979. urtetik 2000. urtera, behera egin du ahuntz-azienda kopuruak; %31,3 gutxiago dira egun.
- ↓ Lapurdin, 8.030 txerri-azienda zeuden 2000. urtean; horietatik 836 txerri-amak. Txerri-amak Lapurdiko ustiategien %1,3tan daude. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 26 txerri-ama daude.  
Txerri-azien den kopuruak behera egin du; 1979. urtetik 2000. urtera, %4,3 txikitu da txerri-azien den kopurua. Txerri-amen kopuruak ere behera egin du.
- ↑ 2000. urtean 3.856 zaldi-azienda zeuden Lapurdin, ustiategien %19,7tan. Ustiategi bakoitzean, batez beste, 8 zaldi-azienda daude.  
Gora egin du zaldi-azienda kopuruak aztertutako 21 urteetan; %60,4 gehiago dira 2000. urtean.
- ↑ **Lapurdin**, 2000. urtean, 130.726 hegazti zeuden, ustiategien %53,4tan. Bakoitzean, batez beste, 102 hegazti.  
Gora egin du apur bat hegazti kopuruak 1979. urtetik 2000. urtera; %3,0ko hazkundea izan du.

## Lan familiarra eta alokatua

- ✓ Nekazaritzako zentsuaren arabera, 5 nagusietatik 2k (%41,6,) 55 urte edo gehiago dituzte. Gazteak, berriz, hau da, 40 urtetik beherakoak, %20,1 besterik ez dira, 5etik 1.

**Lapurdiko** ustiategi nagusien artean, nabarmen handitu da **40 urtetik beherakoek** betetzen duten lekua. 1979. urtean, %15,6 ziren adin tarte horretako jabeak, eta 2000. urtean, berriz, %20,1 dira.

**Helduenen taldea**, berriz, nabarmen txikitu da; 1979. urtean %49,2 ziren, eta %41,6 2000. urtean. Herrialde horretan, beraz, ustiategien jabetza gazteen eskuetara igarotzen ari da.

- ↓ Urteko Lan Unitateak 1.822 ziren 2000. urtean Lapurdin. Aztertutako epealdian, nabarmen egin dute behera; 1979. urtetik 2000. urtera, %60,8 jaitsi dira.

Urteko Lan Unitate gehienak familiakoak dira; zehazki, ULUen %87,0 familiakoak dira, eta gainerako %12,4a, soldatapekoak.

Familia ULUek behera egin dute 1979. urtetik 2000. urtera, %63,2. Soldatapeko ULUek ere behera egin dute, %32,3 .

- ↓ **Lapurdiko** ustiategien %94,1 indibidualak dira (2.262).

Ustiategi indibidualak badira ere gehienak, 1979. urtetik 2000. urtera apur bat gutxitu da horien proportzioa. 1979. urtean, ustiategien %97,8 ziren indibidualak, eta 2000. urtean, %94,1. Ustiategi indibidualen atzeratze hori, batez ere, 1988. urtetik aurrera gertatu da.

## 6.5. NAFARROA BEHEREA

### Ezaugarri nagusiak

- ↓ 2000. urtean, Nafarroa Beherean nekazaritzako **2.514 ustiategi** genituen, Euskal Herriko ustiategien %3,5. Nafarroa Beherean, ustiategi kopuruak beherakada nabarmena izan du aztertutako epealdian; %26,7 egin du behera 1979. urtetik 2000. urtera.
- ↑ Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak Nafarroa Beherean **71.255 ha.** hartzen ditu, Euskal Herriko NAEren %7,0. Nafarroa Behereko udalerrien azalera guztia kontuan hartzen badugu, udalerrietako azalera guztiaren erdia baino apur bat gehiago da Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria (%53,8).

Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak %14,1 egin du gora aztertu dugun epealdian.
- ↑ Nafarroa Beherean ustiategien batez besteko tamaina 28,0 hektareatakoa da. Euskal Herriko batez bestekoa halako bi (14,1). **30ha. edo gehiago dituzten ustiategiak** ere askoz gehiago dira, ustiategi guztien %40,8.

**Ustiategi bakoitzeko batez besteko NAE** handitu egin da Nafarroa Beherean; 1979an 18,0 hektareatakoa zen, eta 28,0 hektareatakoa 2000. urtean.

### Nekazal lurren aprobetxamendua

#### Landutako lurrak

- ↑ Nafarroa Beherean landutako lurrek 25.773 hektarea hartzen dituzte, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren herena baino gehiago (%36,2). Batez beste, beraz, 15,6 hektarea landu daude ustiategi bakoitzeko.

Aztertutako epealdian, dezente handitu da Nafarroa Beherean landutako lurrek hartzen duten azalera; hain zuzen, %71,4 handitu da 1979. urtetik 2000. urtera.
- ↑ Landutako lurrek NAErekiko hartzen duten portzentajea ere handitu egin da. 1979an, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren %24,1 ziren landutako lurrak, eta 2000. urtean portzentaje hori %36,2raino handitu da.

  - Landutako lurrek betetzen dituzten 25.773 hektarea horietatik:
    - ✓ 10.459 artoak eta bazka-artoak betetzen dituzte landutako lurren %40,6,
    - ✓ 6.707 zerealek, landutako lurren %26,0
    - ✓ 273 mahastiek, landutako lurren %1,1
    - ✓ ...
- ↓ Zerealen hektarea kopuruak behera egin du 1979. urtetik 2000. urtera; %24,3 txikitu da.
- ↓ Artoaren hektarea kopuruak ere behera egin du 1979. urtetik 2000. urtera; %12,2.

- ↓ Mahastien hektarea kopuruak nabarmen egin du behera 1979. urtetik 2000. urtera; %39,9 txikitu da.
- ↑ Azkenik, lugorrien azalera izugarri handitu da Nafarroa Beherean; 1979. urtean, 66 hektarea hartzen zituzten, eta 2000. urtean, 770 hektarea.

### Larre iraunkorretarako lurrak

- ↓ Nafarroa Behereko NAEren ia bi heren (%63,2) larre iraunkorretarako lurrek osatzen dituzte, 45.015 hektarea.  
Behera egin du larre iraunkorretarako erabiltzen den azalera. 1979. urtetik 2000. urtera, %3,6 txikitu da.

### Aziendak

- ↑ Nafarroa Beherean 62.793 behi-azienda daude, ustiategien %73,8tan. Batez beste, 34 buru daude behiak-azienda dituzten ustiategi bakoitzean.  
1979. urtetik 2000. urtera, handitu egin da behi-azienda kopurua, %34,6, hain zuzen. Behi kopurua ere handitu egin da, baina esnetarako behien kopurua jaitsi egin da.
- ↑ Nafarroa Beherean, 260.455 ardi-ama daude, ustiategien %57,6tan. Batez beste, 180 buru daude ardi-amak dituzten ustiategi bakoitzean.  
Aztertutako epealdian, 1979tik 2000ra, gora egin du ardi-ama kopuruak; %38,5 handitu da.
- ↓ 2000. urtean, 1.041 ahutz-azienda zeuden, Nafarroa Behereko ustiategien %2,6tan. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 16 ahuntz dituzte.  
1979. urtetik 2000. urtera behera egin du ahuntz-azienda kopuruak, %18,2.
- ↓ Nafarroa Beherean, 2000. urtean 25.801 txerri-azienda zeuden; horietatik 4.180 txerri-amak. Txerri-amak Nafarroa Behereko ustiategien %5,4tan ageri dira. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 31 txerri-ama daude.  
Txerri-azien den kopuruak behera egin du; 1979. urtetik 2000. urtera, %14,1 txikitu da txerri-azien den kopurua. Txerri-amen kopuruak ere behera egin du.
- ↑ 2000. urtean, Nafarroa Beherean 2.755 zaldi-azienda zeuden, ustiategien %19,1tan. Ustiategi bakoitzean, batez beste, 6 zaldi-azienda daude.  
Gora egin du zaldi-azienda kopuruak 21 urteetan; %16,4 gehiago dira egun.
- ↑ 2000. urtean, 228.577 hegazti zeuden, Nafarroa Behereko ustiategien %73,2tan. Bakoitzean, batez beste, 124 hegazti.  
Gora egin du hegazti kopuruak 1979. urtetik 2000. urtera; %63,8ko hazkundera izan du.

## Lan familiarra eta alokatua

- ✓ Nekazaritzako zentsuaren arabera, ustiategi nagusien herenek baino gehiagok (%35,1,) 40 urte baino gutxiago dituzte. Helduenak, berriz, hau da, 55 urte edo gehiago dituztenak, %18,9 besterik ez dira, 5etik ia 1.

**Nafarroa Behereko** ustiategi nagusien artean nabarmen handitu da **40 urtetik beherako**en pisua. 1979. urtean, %26,4 ziren adin tarte horretako nagusiak, eta 2000. urtean, berriz, %35,1 dira.

**Helduenen taldea**, berriz, nabarmen txikitu da; 1979. urtean %30,3 ziren eta %18,9 2000. urtean. Herrialde horretan, beraz, ustiategi nagusiak gaztetzen ari dira.

- ↓ Nafarroa Beherean Urteko Lan Unitateak 3.430 ziren 2000. urtean. Aztertutako epealdian, behera egin dute; 1979. urtetik 2000. urtera %37,6 jaitsi dira.

Urteko Lan Unitate gehienak familiakoak dira; zehazki, ULUen %96,4 familiakoak dira, eta gainerako %3,2a soldatapekoak.

Familia ULUek behera egin dute 1979. urtetik 2000. urtera, %38,5. Soldatapeko ULUek, berriz, berdintsu jarraitu dute kopuruz; 1979. urtean 109 ziren eta 2000. urtean 111.

- ↓ **Nafarroa Behereko** ustiategien %88,1 ustiategi indibidualak dira

Ustiategi indibidualak izan arren gehienak, 1979. urtetik 2000. urtera jaitsi egin da horien pisua. 1979. urtean ustiategien %98,5 ziren banakoenak, eta 2000. urtean %88,1 dira. Banakoen ustiategiek izan duten atzeraldia, batez ere, 1988. urtetik aurrera gertatu da.

## 6.6. NAFARROA GARAIA

### Ezaugarri nagusiak

↓ 1999. urtean, Nafarroa Garaian **nekazaritzako 25.406 ustiategi** zeuden, Euskal Herriko ustiategien %35,4. Aztertutako epealdian, 1982. urtetik 1999. urtera, Nafarroa Garaian ustiategi kopuruak beherakada izugarria izan du; ustiategi kopurua %40,3 txikitu da. Euskal Herriko ustiategi gehienak herrialde horretan badaude ere, Nafarroa Garaia da kopuru absolutuetan eta proportzioan ere ustiategi gehien galdu dituen herrialdea.

↑ Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak Nafarroa Garaian **601.449 ha.** hartzen ditu, Euskal Herriko NAEren %59,5. Nafarroa Garaiko udalerrien azalera guztia kontuan hartzen badugu, udalerrietako azalera guztiaren %63,1 da Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria. Euskal Herriko herrialdeetan portzentajerik handiena.

Nafarroa Garaian Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak %16,3 egin du gora aztertutako epealdian. Dena den, aipatzekoa da gorabeherak izan direla NAEk hartzen duen hektarea kopuruan. 1982. urtetik 1989. urtera, hektarea kopurua handitu egin zen (%20,0), baina urte horretatik 1999. urtera, gutxitu egin zen NAE (%3,0ko galera izan zuen).

↑ Nafarroa Garaian ustiategien batez besteko neuria 23,7 hektareatakoa da, Euskal Herriko batez bestekotik nahiko gora. **30ha. edo gehiago dituzten ustiategiak**, berriz, %15,8 dira.

**Ustiategi bakoitzeko batez besteko NAE** izugarri handitu da Nafarroa Garaian; 1982an 12,1 hektareatakoa zen, eta 1999. urtean, 23,7 hektareatakoa.

### Nekazal lurren aprobeixamendua

#### Landutako lurak

↓ Nafarroa Garaian, landutako lurrek 329.502 hektarea hartzen dituzte, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren erdia baino gehiago (%54,8). Batez beste, beraz, 15,5 hektarea landu daude ustiategi bakoitzeko.

Aztertutako epealdian, apur bat txikitu da Nafarroa Garaian landutako lurrek hartzen duten azalera; %2,5 txikitu da.

↓ Landutako lurrek NAErekiko hartzen duten portzentajea ere txikitu egin da; 1982an, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren %65,4 ziren landutako lurak, eta 1999. urtean, portzentaje hori %54,8ra jaitsi da. Dena den, ez dugu ahaztu behar, Arabarekin batera, Nafarroa Garaiak duela portzentajerik handiena.

○ Landutako lurrek hartzen dituzten 329.502 hektarea horietatik:

- ✓ 202.872 zerealek betetzen dituzte landutako lurren %61,6,
- ✓ 71.606 mahastiek, landutako lurren %21,7
- ✓ 15.494 artoak eta bazka-artoak, landutako lurren %4,7
- ✓ 13.555 barazki eta patatak, landutako lurren %4,1
- ✓ ...

- ↓ Zerealen hektarea kopuruak behera egin du apur bat 1982 urtetik 1999ra; %4,9 txikitu da.
- ✓ Artoaren hektarea kopuruak bere horretan jarraitu du 1982 urtetik 1999ra.
- ↓ Barazkien eta patataren hektarea kopuruak, berriz, beherea egin du; %23,6 txikitu da.
- ↑ Mahastien hektarea kopuruak nabarmen egin du gora 1982. urtean halako hiru da 1999. urtean.
- ↓ Azkenik, lugorrien azalera apur bat txikitu da 1982. urtetik 1999 urtera; %4,5, hain zuzen.

### Larre iraunkorretarako lurrak

- ↑ **Nafarroa Garaiko NAEren ia erdia (%45,2)** larre iraunkorretarako lurrek osatzen dute, 271.947 hektarea.  
Gora egin du larre iraunkorretarako erabiltzen den azalera, %52,1.

### Aziendak

- ↑ **116.813 behi-azienda** daude, Nafarroa Garaiko ustiategien %10,6tan. Batez beste, **43 buru** daude behiak-azienda dituzten ustiategi bakoitzean.  
1982. urtetik 1999. urtera, handitu egin da behi-azienda kopurua; %58,3ko hazkundera izan du. Behien eta esnetarako behien kopurua ere handitu egin da
- ↑ **617.929 ardi-ama** daude, Nafarroa Garaiko ustiategien %9,8tan. Batez beste, 248 buru daude ardi-amak dituzten ustiategi bakoitzean.  
1982tik 1999ra, gora egin du ardi-ama kopuruak, %68,1.
- ↑ 1999. urtean, **20.752 ahutz-azienda** zeuden, Nafarroa Garaiko ustiategien %2,0. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 42 ahuntz dituzte.  
1982 urtetik 1999 urtera gora egin du ahuntz-azienda kopuruak; %77,2 gehiago dira egun.
- ↑ Nafarroa Garaian, 1999. urtean, **503.810 txerri-azienda** zeuden errolatuak; horietatik 70.104 txerri-amak. Txerri-amak Nafarroa Garaiko ustiategien %4,8tan daude. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 57 txerri-ama daude.  
Txerri-azien kopuruak gora egin du; 1982. urtetik 1999. urtera, %76,3 handitu da. Txerri-amen kopuruak ere gora egin du.
- ↑ 1999. urtean **11.737 zaldi-azienda** zeuden, Nafarroa Garaiko ustiategien %5,2tan. Ustiategi bakoitzean, batez beste, 9 zaldi-azienda daude.  
Gora egin du zaldi-azienda kopuruak aztertutako 17 urteetan; %13,8 gehiago dira egun.
- ↑ 1999. urtean, **2.915.693 hegazti** zeuden, Nafarroa Garaiko ustiategien %9,3tan. Bakoitzean, batez beste, 1.230 hegazti.  
Gora egin du hegazti kopuruak 1982. urtetik 1999. urtera, %9,7, hain zuzen. Dena den, hazkundera 1982-1989 urteen artean gertatu zen, eta 1989. urtetik 1999. urtera, hegazti kopurua jaitsi egin da.

## Lan familiarra eta alokatua

- ✓ Nekazaritzako zentsuaren arabera, ustiategi nagusien erdiek baino gehiagok (%57,4,) 55 urte edo gehiago dituzte. Gazteak, berriz, hau da, 40 urtetik beherakoak, ustiategi nagusien %14,3 besterik ez dira.

**Nafarroa Garaiko** ustiategi nagusien artean gehien handitu den taldea 40 urtetik beherakoena da. 1982. urtean %13,2 ziren adin tarte horretako nagusiak, eta 1999. urtean, berriz, %14,3 dira.

Dena den, **helduenen taldea** ere handitu egin da, adin tarte ertainekoen kalterako; 1982. urtean %54,7 ziren eta %57,4 1999. urtean.

- ↓ **Nafarroa Garaian** Urteko Lan Unitateak 16.445 ziren 1999. urtean. Aztertutako epealdian, behera egin dute; 1982. urtetik 1999. urtera, %27,0 jaitsi dira.

Urteko Lan Unitate gehienak familiakoak dira; zehazki, ULUen %71,7 familiakoak dira, eta gainerako %28,3a soldatapekoak.

Familia ULUek behera egin dute 1982. urtetik 1999. urtera, %37,9. Soldatapeko ULUek, berriz, gora egin dute; %30,5 handitu dira.

- ↓ **Nafarroa Garaiko** ustiategien %92,8 ustiategi indibidualak dira, hau da, titularra pertsona fisiko bat da.

Ustiategi indibidualek hartzen badute ere lekuri gehien, 1982. urtetik 1999. urtera atzera egin dute. 1982. urtean ustiategien %97,2 ziren banakoenak, eta 1999. urtean %92,8 dira. Atzerakada hori, batez ere, 1989. urtetik aurrera gertatu da.

## 6.7. ZUBEROA

### Ezaugarri nagusiak

- ↓ 2000. urtean, Zuberoan **nekazaritzako 1.070 ustiategi** zeuden, Euskal Herriko ustiategien %1,5. 1979. urtetik 2000. urtera, Zuberoan behera egin du nabarmen ustiategi kopuruak; %33,5eko galera gertatu da.
- ↑ Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak Zuberoan **33.431 ha.** hartzen ditu, Euskal Herriko NAEren %3,3. Zuberoako udalerrien azalera guztia kontuan hartzen badugu, udalerrietako azalera guztiaren %41,0 da Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak %18,7 egin du gora aztertu dugun epealdian.
- ↑ Zuberoan ustiategien batez besteko tamaina 31,0 hektareatakoa da; Zuberoakoa da Euskal Herriko batez besteko altuena. **30ha. edo gehiago dituzten ustiategiak**, berriz, ustiategi guztien %47,2 dira; portzentaje hori ere Euskal Herriko handiena da.

**Ustiategi bakoitzeko batez besteko NAE** handitu egin da Zuberoan; 1979an 18,0 hektareatakoa zen, eta 2000. urtean, 31,0 hektareatakoa.

### Nekazal lurren aprobeixamendua

#### Landutako lurrak

- ↑ Landutako lurrek 11.295 hektarea hartzen dituzte Zuberoan, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren herena (%33,8). Batez beste, beraz, 13,9 hektarea landu daude ustiategi bakoitzeko.
 

Aztertutako epealdian, dezente handitu da Zuberoan landutako lurrek hartzen duten azalera; %74,5.
- ↑ Landutako lurrek NAErekiko hartzen duten portzentajea ere handitu egin da. 1979an, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren %23,0 ziren landutako lurrak, eta 2000. urtean, portzentaje hori %33,8raino handitu da.
- Landutako lurrek hartzen dituzten 11.295 hektarea horietatik:
  - ✓ 3.985 artoak eta bazka-artoak betetzen dituzte landutako lurren %35,3,
  - ✓ 2.981 zerealek, landutako lurren %26,4
  - ✓ 17 mahastiek, landutako lurren %0,2
  - ✓ ...
- ↓ Zerealen hektarea kopuruak behera egin du 1979. urtetik 2000. urtera; %30,8 txikitu da.
- ↓ Artoaren hektarea kopuruak ere behera egin du 1979. urtetik 2000. urtera; %27,0.
- ↓ Mahastien hektarea kopuruak nabarmen egin du behera 1979. urtetik 2000. urtera; %82,1 txikitu da.

- ↑ Azkenik, lugorrien azalera izugarri handitu da Zuberoan; 1979. urtean, 8 hektarea hartzen zituzten, eta 2000. urtean, 211 hektarea.

### Larre iraunkorretarako lurrak

- ↑ Zuberoako NAEren bi heren (%66,0) larre iraunkorretarako lurrek osatzen dituzte, 22.070 hektarea.

Gora egin du apur bat larre iraunkorretarako erabiltzen den azalera. 1979. urtetik 2000. urtera, %2,6ko hazkundera gertatu da.

### Aziendak

- ↑ 32.838 behi-azienda daude, Zuberoako ustiategien %81,6tan. Batez beste, 38 buru daude behiak-azienda dituzten ustiategi bakoitzean.

1979. urtetik 2000. urtera, handitu egin da behi-azienda kopurua, %45,8. Behi kopurua ere handitu egin da; esnetarako behien kopurua, berriz, jaitsi egin da.

- ↑ 93.165 ardi-ama ditugu, Zuberoako ustiategien %59,7tan. Batez beste, 146 buru daude ardi-amak dituzten ustiategi bakoitzean.

1979tik 2000ra, gora egin du ardi-ama kopuruak; %17,0 handitu da.

- ↓ 2000. urtean, 549 ahutz-azienda zeuden, Zuberoako ustiategien %2,9tan. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 18 ahuntz dituzte.

1979. urtetik 2000. urtera behera egin du ahuntz-azienda kopuruak; %14,8ko galera izan du.

- ↑ 7.670 txerri-azienda daude; horietatik 341 txerri-amak. Txerri-amak Zuberoako ustiategien %1,8tan daude. Ustiategi horietako bakoitzean, batez beste, 18 txerri-ama daude.

Txerri-azienden kopuruak gora egin du; 1979. urtetik 2000. urtera, %41,4 handitu da txerri-azienden kopurua. Txerri-amen kopuruak, berriz, behera egin du.

- ↓ 2000. urtean, Zuberoan 1.353 zaldi-azienda zeuden, ustiategien %18,4tan. Ustiategi bakoitzean, batez beste, 7 zaldi-azienda daude.

Behera egin du apur bat zaldi-azienda kopuruak 21 urteetan; %4,6 gutxiago dira egun.

- ↓ 62.170 hegazti ditugu, Zuberoako ustiategien %80,7tan. Bakoitzean, batez beste, 72 hegazti.

Behera egin du hegazti kopuruak 1979. urtetik 2000. urtera; %8,0 jaitsi da.

## Lan familiarra eta alokatua

- ✓ Nekazaritzako zentsuaren arabera, ustiategi nagusien ia hirutik batek (%32,0,) 40 urte baino gutxiago ditu. Helduenak, berriz, hau da, 55 urte edo gehiago dituztenak, nagusien %19,1 besterik ez dira, 5etik ia 1.

**Zuberoako** ustiategi nagusien artean nabarmen handitu da **40 urtetik beherakoan garrantzia**. 1979. urtean, %24,4 ziren adin tarte horretako nagusiak, eta 2000. urtean, berriz, %32,0 dira.

**Helduenen taldea**, berriz, nabarmen txikitu da; 1979. urtean %31,4 ziren, eta 2000. urtean, %19,1. Herrialde horretan, beraz, ustiategiak gazteen esku geratzen ari dira.

- ↓ **Zuberoan** Urteko Lan Unitateak 1.767 ziren 2000. urtean. Aztertutako epealdian, behera egin dute; 1979. urtetik 2000. urtera, %33,1 jaitsi dira.

Urteko Lan Unitate gehienak familiakoak dira; zehazki, ULUen %96,6 familiakoak dira, eta gainerako %3,1a soldatapekoak.

Familia ULUek behera egin dute 1979. urtetik 2000. urtera, %33,8. Soldatapeko ULUek, berriz, lehen bezalatsu jarraitu dute; 1979. urtean 57 ziren eta 2000. urtean 54.

- ↓ **Zuberoako** ustiategien %91,5 ustiategi indibidualak dira (979).

Ustiategi indibidualak izanik ere gehienak, 1979. urtetik 2000. urtera apur bat jaitsi da horien portzentajea. 1979. urtean, %98,9 ziren, eta 2000. urtean, %91,5 dira. Batez ere, 1988. urtetik aurrera hasi ziren atzera egiten ustiategi indibidualak.